

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 223 ikastaro eskainiko ditu 2017an, pertsona landunentzako

3.300 plaza jarriko ditu langileen esku, Agoitz, Altsasu, Doneztebe, Lizarra, Iruña, Tafalla eta Tuterako 14 ikastetxetan

Asteartea, 2017.eko otsailak 21

Nafar Lansare  
Nafarroako Enplegu  
Zerbitzuak [landun pertsonak trebatzeko](#) 223 ikastaro lagunduko ditu diruz 2017. urte amaiera arte, 13 ikastetxetan. Neurri horrek 985.959 euroko kostua dauka, eta 223 ikastarotako % 100ean diruz lagundutako 3.300 plaza inguru finantzatuko da kopuru horrekin; guztira, trebakuntzako 7.000 ordu.



Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bulegoa.

Ikastaro horietatik guztietatik 46 Agoitz, Altsasu, Doneztebe, Lizarra, Tafalla eta Tuterako udalerrietako ikastetxetan eskainiko dira. Gainerakoak, berriz, Iruñean eta Iruñeko eskualdean.

Nafarroako lurraldeko pertsona landunei zuzenduta dago, batez ere, deialdia, baina langabeek ere badute parte hartzeko aukera; gehienez ere partaideen % 40 izan daiteke langabea. Nafarroako Gobernuaren Enpleguaren Atarian daude ikusgai ikastaroen zerrenda, datak eta lekuak, Nafarroako Gobernuaren [enpleguari buruzko atarian](#); hor jasotzen da enplegurako, ekintzailtzarako edo enplegurako gaitasun pertsonalerako Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza-eskaintza.

Langile guztiek egin ditzakete ikastaroak, baina berriazko hiru lerro daude. Lehenengoak 786.039 euroko aurrekontua dauka, eta sektore arteko prestakuntzari dagokio; jarduera ekonomikoko hainbat sektoreri zuzendutako zeharkako gaitasunak ikastera bideratutako trebakuntza-ekintzez osatuta dago, edo sektore bateko berriazko gaitasunak ikastera bideratutako ekintzez, beste sektore batzuetako langileen birziklapen eta birgaikuntzarako, langileen legezko ordezkaritzaren berezko eginkizunetarako gaikuntzara bideratutako prestakuntza barne.

Bigarren lerroa bereziki zuzenduta dago ekonomia sozialeko bazkide eta langileei, beti ere jarduera ekonomikoa badaukate, eta 99.928 euroko aurrekontua dauka. Azkenik, langile autonomoei zuzendutako beste lerro bat dago, 99.992 euroko aurrekontuarekin.

Aurrez aurre, teleprestakuntza bidez edo modu mistoan emango dira eskolak eta, oro har, gutxienez 6 ordukoak eta gehienez 270 ordukoak izango dira ikastaroak. Profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza-ekintzak aurrez aurreko modalitatean eskainiko dira nahitaez, eta lantokietan prestakuntza praktikoa egiteko aukera eskainiko dute, baldin eta profesionaltasun-ziurtagiri osoa eskaintzen bada.

Ekimen horiek lan-merkatuaren beharretara egokitutako prestakuntza eskaintzen dute, eta enplegarritasuna, promozio profesionala eta langileen garapen pertsonala hobetzera ere badaude bideratuta. Prestakuntza-erakundeek 2017ko azaroaren 30era arte epea dute prestakuntza-programak garatzeko, eta ikasleak aukeratzeaz ere arduratuko dira.

### **Informazio aurreratua**

Lau urtean lehen aldiz, deialdi honek urtean zehar garatuko den prestakuntza guztia aldeztu aurretik eskaintzeko aukera ematen du, laguntzen deialdia aurreratu egin baitzen, prestakuntzako erakunde eta zentroek hobeto programa zitzaten 2017rako beren jarduerara, baita enpresen eta langileen beharrei hobeto erantzuteko ere.

Gainera, bigarren urtez jarraian, eta prestakuntzako eskaintza guztia Iruñean eta Iruñeko Eskualdean kontzentratzea saihesteko, lehentasuna eman zaio prestakuntza-ekintzak zona ezberdinetan eskaintzeari. Horrela, Sektore arteko Planen leerroari dagokionez, gutxienez hiru ikastaro emango dira Agoitzen, sei Altsasun, hiru Donezteben, zortzi Lizarran, bederatzita Tafallan eta 17 Tuteran. Gainera, beste jarduketa bat gehitu daitezke ekonomia sozialaren eta autonomoen planen esparruetan.

### **Trebakuntza**

Aipatutako eskaintzaz gain, Nafarroako Gobernuak baditu laguntzak [pymeetako prestakuntzarako](#), [kontratatorako konpromisodun](#) prestakuntzarako, [gazteen kontratazioa](#) sustatzeko eta [zuzendaritza-kideak](#) prestatzeko edo estaltzeko zailak diren lanpostuen gaineko jarduketa-lerroetarako.